

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko abenduaren 21a






Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñea: Euskalerra Irratiak komunikazio sistema berria paratu eta estudio teknikoa digitalizatu du

Cesar Ekisoain: «Jendeak eskertzen du betiko egituratik at dagoen aldizkari bat»



Gure leinuen armarrriak

Etxeko fatxadetatik ordenagailura pasatu dituzte gure leinuen armarrriak. Lizardi Multimedia argitaletxeak Euskal Herriko 2.000 leinuen informazioa eta armarrriak biltzen dituen CD-ROMa argitaratu berri du. Bertan euskal abizen, leinu eta armarrrien inguruko guziak, edo ia guziak, esplikatu

dituzte Fernando Lopez Permisanek eta Marta Ruiz Aiestaranek. Hala, besteak beste, jakin dugu euskal abizenek sorlekua dutela oinarri, Nafarroako abizenik ohikoenak Uharte eta Goñi direla, abizena eta leinua ez direla sinonimoak, eta armarrriak leinuei dagozkiela eta ez abizenei.

Iruñea •

Euskalerrria Irratiaren digitalizazioa

Iruñerriko irrati euskaldunak tresneria berri du zerbitzu hobea eskaintze aldera

Tresneria eguneratu eta digitalizazioaren bidetik sartzeko 37.563 euroko (6.250.00 pezeta) diru laguntza jaso du Euskalerrria Irratiak Udalbiltzaren zuzendaritzatik. Irratiak aspaldiko ametsari ekinen dio horrela.

EGUNOTAN APUR BAT ASALDAtuta dabilta Iruñeko Euskalerrria irrati langileak. Olen-tzero alde aurretik pasatu da Irrintzi dorretik eta dagoeneko jolasean ari dira konpresorea, RDSI kodifikadore, stereogeneradore eta ordenadore berriekin. Udalbiltzako zuzendaritzak eman dizkie opari horiek guztiak.

«Lehenagotik geneuzkan tresna batzuk ajeak jota genituen eta berri beharra ziren», esplikatu du irrati zuzendari Mikel Bujandak. «Erreniega gainan paratua dugun antena udan gehiegi berotzen zenean hondatu egiten zen, eta hori sahisteko behar bezala aireztatu dugu antena ondoko etxola. Hau zen berehala atenditu beharreko arazo larri bat. Eta horrekin batera, beste hainbat berrikuntza egin ditugu».

Tresneria berria

Hala, konpresorea paratu dute aieratzen diren soinu iturri guztiak berdintsuak izan daitezzen. Stereogeneradore berria jarri dute eta horrekin kanpoko erretransmisioak (Sadar, sanferminak) modu duinean sartzen dira, RDSI sistemaren bitartez. Erredakzioko ordenadoreen sarea osatu dute. Eta irrati bi estudioetako kontrol mahaiei atxikiak jarri dituzten ordenadoreekin kuñak eta sintoniak arratoiaren botoia sakatzu sartzu dituzte.

«Ez bakarrik itxurak egiteko», komentatu du Bujandak. «Baliabide gehiagorekin jakatuko dugu orain eta horrek balioko du entzuleari zerbitzu hobea egiteko. Gerora honek aukera emanen digu gure programazioa zabaltzeko, irratia errepikatuz edo alde aurretik programatuz. Azken hau erabakitzeko dago».

Oraingoz sistema berriak nola funtzionatzen duen ikasten ari dira. Iragan asteko ostegun eta ostiralean, tramankulu berriak paratzearekin batera, informatika ikastaro arina jaso



Euskalerrria Irrati langileek egun gutitan tresneria berria instalatu, informatika ikastaro arina jaso eta tresna berriak erabiltzen hais dira.

• ASIER AZPILIKUETA

zuten irraiko langile guzietan, bekadunetatik gerentearaino. Bujandak onartu duenez, oraindik badira kontu batzuk ongi ikasi beharrekoak eta zenbait gauza gaizki ateratzen dira. Baina denbora kontua da, besterik ez.

Euskalerrria irrati ez da digitalizazioari ekiten dion Nafarroako lehen herri irrati euskalduna. Irulegi Irratiak egina zuen lehenagotik. Hain zuzen ere, Euskalerrria irratiak Irulegira joan ziren haien sistemaren eta esperientziaren berri jasotzeko.

→ Asier Azpilikueta



Nafarroa

Euskal kantu txapeldunak

Nafarroako IX. Euskal Kantu Txapelketako finala iragan larunbatean jokatu zuten, Doneztebe Bordatxon. Taldeka Le-kunberriko Gabari taldea izan zen txapelduna, 'Ai ama!' kantarekin. Horren atzetik, Tafallako Gurea taldekoak sailkatu ziren, 'Non daude' kantarekin.

Bikoteka, Begoña Almirantearena eta Nerea Biurrarena aurizberriak izan ziren irabazleak, 'Nere maite, maite polita' kantarekin. Txapeldunordeak Izaskun Samaniego eta Marta Ibañez tafallarrak izan ziren, 'Muxuka' abestiarekin.

Azkenik, bakarlarietan, Itsasne Mundiñano olaztiarrak irabazi zuen, Anje Duhalderen 'Amodio ezitia' kantarekin. Haren atzetik Xuxuna Juanes oderiztarra sailkatu zen, 'Euskal selezioaren alde' kantarekin.

→ Daniel Urrutia

Narbarte

Olentzeroren etxea

BKZ Nafarroa Abentura enpresak Bertizko aterpea 'Olentzeroren etxea' bilakatu nahi du datoren udazkenean. Haurrentzako landa turismoko jarduerak biltzen ditu 'Olentzeroren etxea' ekimenak: gaztainak erre, taloa egin, sutondoan kontu kontari ibili... Baina egitaraua egituratzeko, sariketa antolatuta dute.

Sariketa horretan Euskal Herriko ikastetxe guzietan har dezakete parte. Haurrek marratu edo idatzi beharko dute Olentzeroren etxean ikusi eta egin nahiko luketena: pertsonaiak, abereak, jarduerak... Proposamenak gutunazal itxi batean bidali behar dira Bertiz aterpera (31793 Narbarte) edo, bestela, posta elektronikoz: bkz@navarraaventura.com. Lanak aurkezteko epea heldu den urteko martxoaren lehenean ahituko da. Ikastetxe bakoitzak berak nahi adina gutunazal bidal ditzake.

Parte hartzen duten ikastetxe guzietan zozketa egingen da. Saria: 2002ko urritik abendua bitarte Bertizko aterpean bi eguneko (gau bat) egonaldia, 40 lagunendako. BKZk adierazi duenez, «gisa honetan programa egokitua izanen da», haurrek iradokizunak emanez parte hartuko dutelako. Haurren laguntza sarietan eskertuko dute.

→ Asier Azpilikueta

urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Lesaka • Sorginen mundua dantza eta antzerkian

Mairu antzerki taldeak eta Tantirumairu dantza taldeak ikuskizuna osatu dute elkarrekin

ZUGARRAMURDIKO sorginak antzezlanak Lesakako Mairu antzerki taldearen bigarren lana da, Fernando Rabalen «Trizikloa» egin ostean. Lan hau prestatzen hasi zirenean, Lesakako Tantirumairu Dantza Taldearekin elkarlanean prestatzea pentsatu zuten. Fernando Domenech Ricok 1993an idatzitako antzerki testuan dago oinarritua, eta Beñardo Goietxe beratarak euskaratu du. Antzezlanak Hondarribian 1611n izandako sorgin auzia du ardatz, Logroñon izandako auzi handiaren ondotik egindakoa. Garai hartako giza harremanak erakutsi eta gertaerak hobeki ulertzen laguntzen duela aprobetxatuz, gaurko gizarteari buruz gogoeta eragin nahi du lanak.

Kontatzen den historia Zugarramurdirin lekutua egonagatik ere, Bortzirietako siniskeri eta kondairak ikertu ditu taldeak, tartean musika, kantu zaharrak, dantzak eta erritokoak. Hala ere, euskalkia ezagutzeko eta lantzeko parada eskaini die antzeleren taldekideei. Testuak, hala ere, zenbait zati gaztelan

niaz ditu, gidoiak hala eskatuta, nahiz nagusiki euskara darabilten.

Ordu eta erdiko iraupean du antzezlanak, eta egitasmo handia izan da, bai parte hartzen duen jende kopuruarengatik, baina baita Lesakako herriaren-

tzat ekarri duen dinamikarengatik ere. Antzerkia, musika eta dantza uztartzeak berezia bihurtu du lana. Denetara 21 aktore taularatuko dira, eta guztiek momenturen batean jokatzen dute dantzari zein aktore papera. Hala ere, bistan da,

dantzako zatiak, nagusiki, dantza taldeko kideek bete dituztela, eta aktore lanak, berriz, antzerki taldekoek.

Mairu antzerki taldearen heziketa artistiko zabala lortzea izan du helburua hasieratik, eta sortze lana inguru horretan garatzen du. Antzeko asmoa du Tantirumairu dantza taldeak ere. Lan horren gidari Ramon Albistur izan da nagusiki. Bera arduratu da zuzendaritza artistikoaz, pedagogikoaz, gidoiak eta dramaturgiak. Mairu antzerki taldearen sorreraz geroztik da taldearen irakasle, eta 1992az geroztik lan pedagogikoa egiten dihardu Beran. Musikaz Gaizka Sarasola arduratu da, txistularia, Mairuko aktorea eta Tantirumairu dantza taldeko dantzaria. Koreografiak, aldiz, Edu Muruamendiarek zuzendu ditu, Lesakako dantza taldeko irakaslea 1995az geroztik. Jantzietaz eta eszenografiak Esther Carriro arduratu da, eta eszenografia apaintzen duten argazkiak Asier Gogortzak atera ditu, Zugarramurdirin lekutuak gehienak ere.

→ Jon Abril



Mairu eta Tantirumairu taldeetako kideak «Zugarramurdiriko Sorginak» ikuskizuneko entseguetako batean. • JON ABRIL

Lesakako Mairu antzerki taldeak eta Tantirumairu dantza taldeak bat egin dute «Zugarramurdiriko Sorginak» ikuskizuna prestatzeko. Estreinakoa igandean izanen da Lesakako pilotalekuan, arratsaldeko 18:30an.

herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Mailoperen aldeko kanpaina

Inguruko berriekin batera eskaera berezia luzatu diete *Mailope* aldizkari arduradunek irakurleei azken zenbakiarekin batera; hamaika urte dira aldizkaria abian jarri zela baina aurrera segitzeko arazo asko du eta, hori dela eta, irakurleen laguntza eskatu dute *Mailope*koek: «Araitz eta Beteluko euskara batzordetik *Mailope* aldizkaria martxan jarri zela hamaika urte bete dira. Urte hauetan guztietan 82 ale kaleratu dira. Zalantzarik gabe, beste hamaika urte eta gehiago irautea gusta-

tuko litzaiguke guztioi. Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko herritar gehienengana iristea lortu dugu».

«Penagarria izango litzateke hemendik gutxira ateak ixten ditugula esatea. Seguruenik mundua ez litzateke bukatuko, baina guztiona den zerbait kuttuna galdu izanaren sentsazioa izango genuke. Ba, horretara gatoz, orain daramagun bidean luzaroan ezin dugula aitortzea. Zaila da da aldizkaria ateratzea eta diru faltak ere poliki-poliki itotzen gaitu. Honi guztiari

aurre egiteko bide berriak jorratzen hasi beharra daukagu». Aldizkariaren argitalpena bere gain hartuko lukeen elkartearen sortzea da *Mailope*koek proposatu duten bide berri hori: «Alde batetik, orain arte ez dugun izate juridikoa emanen liguké, eta, bestetik, bazkideen bidez diru iturri garrantzitsu bat izatea lortuko litzateke».

30 eurokoa izanen litzateke urte osorako ordaindu beharreko kopurua bazkideentzat. Kanpaina abian jarri du dagoeneko *Mailope*ko.

H.E.I.D.

Pasiatzera atera naiz nire zutabetxoan buruan zirriborratzeko asmoarekin eta Zapateria kaletik noala «tupustean-geldirik-geratzen-dengizona» ikusi eta «honetaz idatzi dut» bururatsen zait. Gero Takonerara lo egitera dihoan arabazozo talde bat pasatzen da kale gainetik hegan eta «honetaz ere idatzi dut» bururatsen zait berriz ere. «Honetaz ere idatzi dut» pentsatzen dut semaforoan geldirik ondoko ilehoriari zeharka begiratzean. «Honetaz ere idatzi dut» Gaztelugibean lotan dauden zuhaitzen azpitik igarotzen naizenean. «Honetaz ere idatzi dut» (hemendik aurrera: H.E.I.D.) pasilluaren hasieratik bukaeraino Takoneraren atzealdetik etxera itzultzen naizenean. Atea ireki eta nire esperoan Xaxa aurkitzen dut pasilluan. «Miao» esaten dit eta H.E.I.D. bururatsen zait. Abendua gero eta beltzagoa eta jasanezinagoa iruditzen zaidala pentsatzen jartzen naiz eta H.E.I.D. Bazkaria prestatzen hasten naizenean ura bor-borka ikusten dut eta H.E.I.D. Sukaldea ura eta suaren erreinu txikia bezala ikusi beharko genukeela otu zait eta H.E.I.D. Gaur dena da H.E.I.D. Ez naiz oso zaharra. Ez dut asko idatzi ere. Beraz Aipatu Beharreko guztiak dagoeneko aipatuak ditudala izango da. Nire gai guztiak agortu ditut, nonbait. Xaxak «miao» esaten dit, berriz ere, eta pentsua platertxoan jartzearekin batera animala honen barne erlojuaren zehastasunaz harritzen naiz zeren egunero zazpietan afora eskatzen du eta... baina... beno... H.E.I.D.... bai, egia da... «Honetaz ere idatzi dut». H.E.I.D. pixka bat deprimiturik salara abiatzen naizenean. H.E.I.D. ordenagailua pizten dudanean eta martxan jartzen den bitartean leihotik begiratzera joan naizenean, eta Eguberrietako argiei buruz lau ideia burura etortzen zaizkidanean ere H.E.I.D. Bapatean H.E.I.D. ez den neska bat ikusi dut kalean. Neska ezezaguna tabernan sartu da. Ez dut oso ongi ikusi beraz. Txano txuri bat zeraman eta jaka urdina, hori bai. Listo: H.E.I.D. bilakatu dut dagoeneko. Gaur dena da H.E.I.D. •

Ordenagailurako armarrak

Euskal Herriko 2.000 leinuen informazio eta armarrak biltzen dituen CD-ROMa argitaratu dute

• MIKEL SAIZ

ABIZENAK IZEN BEREKO PERTSONAK BEREIZTEKO beharri erantzuteko sortu ziren. Europako herrietan hainbat irizpide erabili zituzten pertsonak izendatzeko. Badira abizen nominatiboak (Gimeno, Christian), patronimikoak (Gimenez, Christiansen), jatorriari so egiten diotenak (Genovese, Welsh), ofizio batekoak (Fisher, Schneider), deskribatzaileak (Blanco, White, Leblanc) eta izaeraren inguruak (Galan, Goodman).

Tokia, euskal abizenaren oinarri

Baina Euskal Herrian bestelako pertsonak aurkituko ditugu: Nafarroan, Francisco Javier Uharte Goñi; Ipar Euskal Herrian, Beñat Hiriart Dagerre; Araban, Estibalitz Lopez de Gereñu Martinez de Apodaka; Gipuzkoan, Ignacio Aizpuru Agirre; eta Bizkaian, Begoña Uribebarria Zenarruzabeitia.

Kontua da Euskal Herrian beste irizpide bat erabili zutela abizenak sortzeko. Euskal abizenak toponimokiak dira: jatorrizko lekuaren izenarekin bat egiten dute. Hau da, gure abizena aipatzen dutenean gure jatorriko etxea, baserria, dorretxea, jauregia edo herria aipatzen dute. Alli, Nagore edo Uharte bezalakoek herria dute erreferentzia. Elizalde eta Garaikoetxea bezalakoek etxearen kokapena. Perurena, Martikorena eta Marielarena bezalakoek, berriz, etxeko jabea dute hizpide.

Etxeetatik leinuak

Ikus daitekeenez, Euskal Herrian anitzetan etxearen izenak ematen zuen pertsona bat ezagutzeko bereizgarria. Etxeak definitzen zituen euskaldunak, abizena emateraino.

Eta etxe horietatik leinuak sortu ziren. Eta leinuak ezberdintzeko, armarrak agertu ziren. Hasierako armarrak sinpleak ziren oso. Nahikoa zuten kolore bat erabiltzea. Baina gerora, leinuak ugaltzen joan ziren heinean, armarrak konplikatu egin ziren, eta osagai gehiago sartu: arbolak, animaliak, gazteluak, gurutzak, xingolak... Armarrak horiek oinarri-dekoretzen parte ziren eta leinuari egiten zioten erreferentzia.

Lehen, abizen bezala etxeko, baserriko edota herriko izena hartzen zen, baita emaztearen izena hartu ere. Abizenik indartsuena hartu ohi zen. Akaso horregatik dira hainbeste Goñitar Nafarroan. Baina Goñi izeneko leku bakarra da. Apika, leinu indartsua izan zen garai batean, eta, jendeak abizena aukeratzeko tenorean azkarrenera jotzen zuenez, askok Goñira jo zuten.

Kontuak kontu, armarrak Erdi Aroko asmakizunak dira. Gudalekuean erabili eta etxeko fatxadetan paratu zituzten. Gerrarako ez ditugu orain erabiliko, baina gure etxe zaharretako aitzinaldeetan oraindik ere badira. Orain, *Heráldica Vasco-Navarra CD-ROM*aren ordenagailuan, XXI. mendeko gerra makinan, gure leinuaren armarrak zehatza izateko aukera dugu. Baina, jakina, lehenbizi zein leinutakoak garen jakin beharko dugu, eta hori, zoritxarrez, ez da saguaren klik soil batekin jakiten ahal.

→ Asier Azpilikueta




HERRIKO ETXEA

Euskal abizen, leinu eta armarren inguruko guziak, edo ia guziak, esplikatu dituzte Fernando Lopez Permisanek eta Marta Ruiz Aiestaranek 'Heráldica Vasco-Navarra' CD-ROMean. Lizardi Multimedia argitaratu du eta, bertan, Euskal Herriko 2.000 leinuen informazioa, heraldika hiztegi ilustratua, euskal leinuen entziklopedia geografikoa eta armarrak apaintzeko konbinazioak sartu dituzte, besteak beste.

Fitxa

Izenburua: 'Heráldica Vasco-Navarra'.
Formatua: CD-ROMa.
Egileak: Fernando Lopez Permisan eta Marta Ruiz Aiestaran.
Argitaletxea: Lizardi Multimedia.
Salneurria: 29,95 euro (4.990 pezeta).
Edukia: Euskal Herriko 2.000 leinuen informazioa, heraldika hiztegi ilustratua, euskal leinuen entziklopedia geografikoa, eta armarrak apaintzeko konbinazioak, besteak beste.



Fernando Lopez

'HERÁLDICA VASCO-NAVARRA' CD-ROMAREN LEA

«Euskal abizenen armarrak anitzetan ez egiten digute»



• OSKAR MONTERO

«Euskal kultura informatikaren eta multimedia produktuen bidez sakontzeko», Fernando Lopez Permisanek, 32 urteko iruindarrak, beste hainbat kiderekin Lizardi Multimedia sortu zuen 1995ean. Orain, Marta Ruiz Aiestaranekin batera 'Heráldica Vasco-Navarra' egin du, Euskal Herriko 2.000 leinuen informazioa eta armarrak biltzen dituen CD-ROMa.

■ Non du sorburua lan honek?

Hau ez da honen inguruan egiten dugun lehen lanaren go 'Apellidos Vasco-Navarros' izeneko egin gurean haren jarraipena da. Makina bat iturritan jadanik existitzen informazioa biltzea izan da lan honen oinarri. XVI. mendetik paperean argitaratuta zegoen hori bizitza eman nation, informatikak eskaintzen dituen baliabideekin —bakekin batez ere— joko handiagoa emateko.

■ CD-ROMean agertzen diren armarrak zehaztu dituzte?

Bai, baina ez ditugu guk asmatu. Armeria liburuteta armarrak estudioetan dauden hainbat interpretazioarekin gara. Batzuen eta bestearen interpretazioak aintzat hartu, eta beti zein iturritatik edan dugun adierazi dugu, arnadin. Arazoa da hainbat zailtasun daudela armarrak ongi egiteko.


Batetik, kontuan hartu behar da armarrak etxearen paratzen zirela, harriari tailatuta. Harriari ez dago kolore eta horrek nahasmena sortu du gero.

Bigarrenik, armarrak deskribatzeko hizkera tekniko zehatza dagoen arren, zenbaitzuek, hizkera hori ezagabe, bere kabuz interpretatu dituzte armarrak, eta akatsak dituzte. Errate baterako, lerro bertikalek 'makil' izena dala horietatik batzuek, ezjakintasunagatik, 'barra' erran diote. Gabe barrak lerro diagonalak direla. Nahasmen txiki handi dala nabarmena dakar hainbat armarrak marrazteko orduan.

Eta, azkenik, armarrak harriari edo paperean egiten zuten artista oso ona ez bazen, gero zaila da interpretatzea. Bataren ondoan dagoena hartza, otsoa edo zakurra dena, eta lau hankako animalia bat bertzerik ez delako ikusi.

■ Armarrariaren itxura interpretatzea bada, are zailagoa gibelean den erranbata?

Horretan fantasia da nagusi. Halere, gure gudu abantaila bat. Izan ere, euskal abizenen armarrak anitzetan hitz egiten digute. Horrela, Olletako arn bi eltzet ageri dira; Usuakoan, usoak; eta Sagastekoan, sagarrondoak. Azken horri dagokionez, etxehar da euskal abizen asko toponimikoak direla, horretarako lursailari egiten diotela erreferentzia; eta, gero, lursail horiek erreferentzia egiten dio bertan da arbolari. Horregatik, askotan agertzen dira arbolari.



ARMENDARITZ

SORTETXEA

Nafarroa Behereko Armendaritz herria du sorburua abizen honek. Bertatik hartu zuen izena, eta bertan izan zuen jatorrizko sortetxe eta jauregia. Armendaritzeko jauregia gutienez 1170 urtetik da ezaguna. Urte horretan Rikardo Lehoi Bihotz Akitaniako dukeak Baiona hiriri pribilegioak eman zizkion, eta horretarako gutunean Armendaritzeko jaunaren zigilua ageri da, beste hainbat barroiren zigiluaren ondoan. Armendaritzarrek jauregi bat izan zuten Astrainen, Nafarroa Garaian. Horren ondorioz dauka hain hedatua Armendaritz abizen ezaguna, eta armarrak aipatu berri dugun gunean du sorburua.

ARMAK

Armarrak kuartelatuak.

1. eta 4. kuarteletan: eremu urdin ilunean, zilarrezko gaztelua urdin ilunean argitua.
2. eta 3. kuarteletan: urrezko eremuan, bi behi gorri makilan paratuak.

ITURRIA

Nafarroako Erresumako Armeria Liburua (1576).



EGUES

SORTETXEA

Abizen honek Eguesen du jatorria, Nafarroa Garaian. Bertatik hartu zuen izena, eta bertan izan zuen jatorrizko sortetxe eta jauregia, erresumako zerrenda ofizialean armeria kabo gisa agertzen dena. Charles Egueskoaren eta Maria Taxoakoaren jabetza gisa agertzen zaigu 1521ean. 1646an Mutiloako Juanena zen, eta hark Mutiloako Juan Jose bere semeari jarein zion. Jauregi honen beste jabe batzuk Vicente Ignacio Mutiloakoa (1723) eta Vicente Mutiloa eta Arizkungoa (1781) izan ziren. Abizen honetako adar bat Gipuzkoara pasatu, eta Andoainen etxe berria fundatu zuen.

ARMAK

Armarrak sinpleak.

1. eta 4. kuarteletan: zilarrezko eremuan, lehoi urdin ilun erpekaria.
2. eta 3. kuarteletan: urrezko eremuan, bi xingola diagonal gorri dardarean.

ITURRIA

Nafarroako Erresumako Armeria Liburua (1576).



ZUNTZARREN

SORTETXEA

Abizen honek Zuntzarrenen du jatorria, Nafarroa Garaian kokatutako herri txiki batean. Bertatik hartu zuen izena, eta bertan izan zuen jatorrizko sortetxe eta jauregia, erresumako zerrenda ofizialean armeria kabo gisa agertzen dena. Bere jaunak honakoak izan ziren: Antso Zuntzarrenkoa (1430); Juan Zuntzarrenkoa (1600); Martin Zuntzarrenkoa (1616); Catalina Zuntzarrenkoa (1705); Miguel Francisco Orondrizkoa (1723); Catalina Orondritz eta Cruzatekoa eta Jose Fermin Artetakoa (1767); eta Fermin Silvestre Artetakoa (1778). Bere jatorriak beraz 500 urte baino gehiago atzera eramaten gaitu.

ARMAK

Armarrak kuartelatuak.

1. eta 4. kuarteletan: zilarrezko eremuan, lehoi urdin ilun erpekaria.
2. eta 3. kuarteletan: urrezko eremuan, bi xingola diagonal gorri dardarean.

ITURRIA

Nafarroako Erresumako Armeria Liburua (1576).

Abizenak ez dira leinuak

Fernando Lopez Permisanek argi utzi nahi izan du abizena eta leinua ez direla gauza bera. Armarrak ez dagozkie abizenari, leinu edo familiei baizik. Zenbait abizenek ez dute armarririk. Aldiz, badira hainbat abizen baina gehiagoko abizenak, abizen batetik leinu bat baino gehiago sortu zelako.

Ezin erraten ahal da: «Nire abizena Uharte da, eta nire armarrak halakoxea da». Ez, lehenbizi ikusi beharko duzu zein leinutakoa zaren, zein armarrak dagokizun jakiteko. «Adibidez, Agirre abizena duten hemeretzi leinu aztertu ditugu guk, hamahiru Uharte, hamar Etxeberria, zazpi Azagra...», azaldu du Lopezek. «Armarrak ezberdina bada, leinua bereizten dugu. CD-ROMean 2.000 leinu daude, eta abizen gutiago, abizen batzuek leinu bat baino gehiago dutelako. Dena dela, hagitzez gehiago dira, 30.000 bat abizen izanen dira Euskal Herrian».

Agorretak lau armarrak




Aipaturikoaren argigarri, Agorreta abizenaren kasua hartzen ahal dugu. Agorreta abizenarekin lotu-

riko lau armarrak aurki daitezke. Abizen horrek Agorretan du jatorria, Nafarroa Garaiko Esteribarren. Bertatik hartu zuen izena, eta bertan izan zuen sortetxe eta jauregia. Leinu horretako lehen kide ezaguna Iñigo Agorretakoa izan zen, 1339 urte aldera bizi izan zena. Armarrak sinplea da; eremu gorrian, gurutze lau urdin iluna. Halako armarrak zuten Urben, Bizkaian, bizi ziren zenbait Agorretatarrek ere.

Baina Agorretako jauregian bada beste armarrak, kuartelatuak. 1. eta 4. kuartelak antz handia dute Akerreta leinuarekin; halako harremanen bat izanen zen bi leinuen artean.

Agorretatarren beste adar batek Agorreta izeneko jauretxe zahar bat izan zuen Leringo Santesteban ibarrean. Armarrak sinplea du. basurde beltz ibiltaria zahaitz berde baten ondoan.

Azkenik, Leringo Santestebaneko adar hau Reta leinukoekin lotuko zen, bi familietako armarrak kuartelatzen baitu. Armarrak hori bera dute Bilboko Agorretatarrek eta Agorraeta abizena dutenek.



Pi-Chi txakur bionikoa eta dialektika

Tesia. Orri zurian dago literatur lan gorena. Idazten hasten ez zaren bitartean, izkiriaturko duzuna potentzialki perfektua da. Izkiriatur paperaren zuritasuna belzten hasi bezain pronto, perfektioetik urruntzen hasten zara. Horixe da **Juanito Zelaia**ren saiakera lehiaketarako prestatu nuen laneko tesia. Hain zuzen ere ideia-irratia berak bultzatuta, orri zuria aurkeztu nuen, eta 'Titulurik gabe' jarri nion izenburutzat. Kontzeptualegia, agian, epaimahaia ez baininduen sikiera finalistaren artean sartu. Nago epaimahaikideek ez zutela ulertu -barka diezadatela atrebentzia

Bernardo Atxagak, **Txema Aranazek** eta gainontzeko eipaimahaikide jaun-andere txit agurgarriek, eta ez diezadatela aintzat hartu heldu den urteko lehiaketa ebatzeko tenorean-. Nago **Jorge Oteiza** ulergarritasun arazo berberak eduki zituela 'Quosque tandem!' ezagutzera eman zuelarik.

Tesiak saiakera lehiaketan milioi bat pezetan, hau da, 200.000 duro, 40.000 libera, 6.024 euro -**Andoni Egaña** baino sasoi intelektual hobean nago: euro kalkulagailurik gabe, buruz eta

arrapaladan egin ditut txanpon bihurtok-, patrikaratzeko balio izan ez zidanez, larunbat eguerdian birziklatzen saiatu nintzen. Jon eta Larratzen seme-alabak eta hirurok goizean Zabalguneko jostailu denda batera joan ginen, Olentzerori idazteko inspirazio bila -portzieto, Olentzero Juanito Zelaia dela diote. Ikatz modernoa egiten du (Zegasa pilak), eta jende guztia opari eske joaten zaio-. Action Man Bin Laden Killer, kaka bionikoa egiten duen Pi-Chi txakur robot azkarrak eta Harry Potterren galtzontzilo



Action Man urpekaria, Eguberrietarako oparia.



Jorge Oteiza eskultorea.

bilduma ikuste hutsarekin mozkortuta, haurrak tar-tar-tar amaitezin gupidagabeen hasi zitzaizkidan uluka Olentzerori zein Errege Magoei -diglosiak badu abantailarik- eskatuko zizkieten guztiak zerrendatzen.

Antitesia. Egoera zaratsatu ezatsegina baretze aldera, nire begi ninietako hitzontzi bioi perfekzio potentzialaren inguruko tesia azaltzea deliberatu nuen. Esan nien isiltasuna orri zuriaren iguala dela. Hitz egiten ez duzun bitartean balitekeela esaten duzunarekin bete-betea asmatzea. Ahots-haria dantzan jarri bezain pronto desbideratzen hasten zarela. Ezer esan aurretik gauzak ongi pentsatu behar direla. Askotan hobe dela isilik egotea. Alferrik.

Gauzak horrela, jada Monte Carlon geundela, haiek freskagarri bana eta ni martini gorria hartzen ari nintzela, haien ahots karrankariak nire tinpano sufrituak zultzeaz zeudela, pazientzia agortuta, azalpen didaktiko luzeak alde batera utzita teoria guztiz laburbilduta azaldu nien oihu batean: «Ixo, dedio!».

Sintesia. Haurrak isildu ziren, isildu zirenez. Isiltasun ederrean bukatu nuen martinia. Isiltasun ederrean abiatu ginen etxerantz. Bidean, Amaia karrikan, Gloria

topatu genuen aurrez aurre, ez **Humberto Tozzik** airean falta zela sumatu eta maite zuen hura, baizik eta Gloria gurea, zaharra, iruindarra, txikia, idorra, jenio bizikoa, nekaezina, aterkiarekin iruindar gizonezko belaunaldi hiru jipoitu dituen, 'joputa' biraorik gustukoena duena, arrosario beltza beti ahoan darabilena. Larunbat goizean, baina, Gloriak begirada zein aterkia galduta zituen, eta, seme-alabok bezala, isilik zegoen. Galdera sorta asaldagarria bururatu zitzaidan: noiztik dago isilik Gloria? Nork isilarazi du Gloria? Nola isilarazi dute Gloria? Etxerainoko bide isilean Gloriaren birauen falta sumatu nuen, bai eta seme-alaben ulu karrankariak ere. Isiltasuna inperfektoa iruditu zitzaidan.



panpilonia zirkus

Enrike Diez de Ultzurrun

1956 eta 1978ko abenduak

«Kardua, bisigua eta turrone». Hori izan da iruindarren azken belaunaldiek Gabon gauean afaldu dutena. Turroietan, Xixona, Artaxoako «royoa» edo gorria, eta gir-latxea, hortz-haginei ederki itsasten zaiona. Gero, gauerdiko oilar meza entzun, etxeratu, gautxorien etsipenerako dena itxita baitzegoen, eta amatxi eta osaba-izebekin briskan jokatu behar edo bertzenaz loterian edo bingoan, baina azken hitz hori ez zegoen erraterik. Etxe anitzetako solasgaia izaten zen ea ohiko dendari eta saltzaileek deus eman ote zuten, kolazioa, alegia. Arrandegietan, angulak ematen zizutuzten, paperezko kukurutxoetan, kiloak 60.000 pezetan ez zegoenean, jakina. Udaltzain batzuei, bertzalde, kolazioa eramaten zieten euren lantokiraino, hots, karrikan trafikoa gobernatzen ari ziren to-

kiraino: «Tori, botila bat xanpain, Delapierre».

Eta iritsi zen 1956ko abendu hura, Olentzero lehenbiziko aldiz Iruñera ailegatu zenekoa, alegia, sekulan hiri batera iritsitako lehena. Handik goiti dena ezberdin izanen zen. Iruñeak, Bigarren Zabalguneak zehazki, Olentzero Donostiara, Bilbo eta abarretara esportatu baitzuen, sines-tea ere aise gertatzen ez den arren. Iruñeak, gainera, bere eitea eman zion Olentzerori: batetik, jaiotza, artzapezpikuaren baldintza izan zen hura, baimena emateko, eta, bertzetik, denboraren joanean hartu zuen giro sanfermineroa, zalapartatsua, jendetsua, sekulako karrikadantza eroa eta basatia izaten baitzen hura, 1977ko hura batez ere, grisak oldartu zirenean. Poliziaren irratian, hauxe aieratzen zen

Olentzerori buruz: «cortejo», «procesión», «Santo con boina», «Santo que fuma...».

Olentzero ugaldu ahala, galdu zen Jaiotza Bizidunak egiteko ohitura, batez ere, Gurutze plazako hartan, ardoa tarteko, gertatu zenaren ondotik. San Jose, Ama Birjina, artzainak, erregeak, aingerua... denak hasieran txintxo, Servicial tabernan gosari legea egin arte. Ondoren, haurra izan zen pinpirrindu ez zen bakarria, panpina baitzen. Dena dela, Olentzerok ere, noiz edo noiz, ohore egin dio bere izaerari. Ezkabarteko haurrak liluratu ondoren, zahatoa hustuta, Ezkabamendin galdu zen hark egin zuen bezala. Beharrik, onik aurkitu zuten.




Iruñeko Olentzero, Alde Zaharreko karriketaren barna...

Eta iritsi zen 1978ko abendu hura, Gabon gauean lehenbiziko aldiz taberna bat zabaldu zuteneko hura, alegia. Handik goiti, gau hura ezberdina izanen zen: San Frantzisko plazako oilar meza entzun ondoren, Malembeko doinuak entzutea. Bistan denez, Karrika Berriko taberna horrek hasitako biderei bertze anitz jarraiki zitzaion, gautxorien gozamerako...

Cesar Ekisoain

☉ 'THE BALDE' ALDIZKARIKO ZUZENDARIA



● MIKEL SAIZ

«Jendeak eskertzen du betiko egituratik at dagoen aldizkari bat»

'The balde' kalean da, Eragin diseinu etxeak bultzatutako aldizkari berria, moda, zinema, artea, musika, literatura eta beste jorrazeko. Mamia bezain garrantzitsua da argitalpen horren azala, eta, alde horretatik, produktu berritzailea da euskal prentsaren esparruan. Irakurlea harrapatzea da aldizkari arduradunen helburua. Gainera, doan.

THE BALDE' KALERATU DUEN lan taldeko kide da Cesar Ekisoain kazetari iruindarra, aldizkari zuzendaria, alegia. 'The balde' erronka dela erran digu, «betiko egituratik at dagoen aldizkaria». Proiektu berriaz mintzatu da gurekin.

■ **Diseinuaren esparruko etxe batek bultzatutako produktua da 'The balde'; horrek erran nahi du mamia baino garrantzitsuagoa dela azala?**

Biak dira garrantzitsuak; egia da esaten duzunak garrantzia duela, baina nola esaten duzun ere garrantzitsua da. Mamiari ematen diozun formak ere gauza asko esaten ditu, formaren bidez gauzak esan daitezke, eta horregatik diseinuari lehentasuna eman nahi izan diogu, edukia ahaztu gabe. Hemen bestela ohituta gaude.

■ **Ohitura falta hori dela eta kanpora jo duzue eredu bilatu?**

Bai, ikusi ditugu Frantzia, Ingalaterra eta Katalunia aldean egiten diren aldizkariak, eta horiek ikusita bururatu zitzaigun orain aurkeztu dugun formula. Askok ikasi dugu besteak eginda-

koa ikusita. Hau, finean, beste toki batzuetan egiten den formula bera da, baina hemen ez zuen inork egiten, eta guk ekin diogu lan horri.

■ **Zein da formula horren gakoa?**

Gure arazo nagusia da bi hizkuntza erabiltzen ditugula eta, ondorioz, testuak asko sintetizatu behar ditugula. Argazkiei ere garrantzia eman nahi izan diegu, eta horrek espazioa mugatzen du. Gure asmo nagusia da orriak pasatzean irakurleak ez dezala deus galtzen ari den irudipena. Nahiz eta irakurleak komikiak gustuko ez izan, adibidez, komikien erreseinei eskainiriko bi orrialdeak atsegin izan ditzala da gure helburua.

■ **Halako produktuak kontsumitzeko hemengo ohitura falta nolabaiteko muga izan da zuen-**

tzat, hau da, kanpoan utzi behar izan al duzue ideiarekin bat hemengo irakurleek onartuko ez luketelakoan?

Ez, alde horretatik ez dugu mugarik izan. 'The balde' bezalako aldizkari bat erronka da, eta egin dezakezun guztia egiten duzu. Gainera, ohitura falta hori ez da arazoa, erraz sartzen den aldizkaria delako. Berritzailea da, neurri handi batean, baina jendeak hori gustuko du, gauza berriak gustatzen zaizkio.

■ **Lehen begiratuarekin irakurlea erakartzea da asmoa?**

Bai, hori da. Nahiz eta aldizkarian aztertzen diren gai guztiak gustuko ez izan, lehen begiratuarekin nolabaiteko sentsazioa piztea irakurlearengan, eta aldizkaria bera gustuko izan dezan lortzea. Ez dugu editorialik sartu

nahi, ez dugu doktrinarik sartu nahi. Hainbat gai jorrazten ditugu, irakurlearen hizpideak aberasteko helburu bakarrarekin.

■ **Iruñean duzue egoitza, baina Euskal Herri oso-rako egindako aldizkaria da, ezta?**

Bai, Euskal Herri osoan banatzeko egindako aldizkaria da, baina gaiari dagokionez ere Euskal Herria ez da gure muga. Kanpora jo behar badugu erreportaiaren bat osatzeko, joan gara. Edozein lekutan irakur daitekeen produktua da, eta, ildo horretan, urrats bat egin dugu jada, eta Landetan banatu dugu lehen zenbakia. Mugak gainditzen jarraitu nahi dugu. Horregatik aukeratu dugu, hain zuzen ere, aldizkari elebiduna egitea, euskaraz eta ingelesez. Egoera politikoak euskal prentsa jan egiten du, eta guk egoera horretatik alde egin nahi izan dugu.

■ **Kolaboratzaile sare finkoa duzue; zein da haien lana?**

Lortu dugun kolaboratzaile sarearekin oso pozik gaude. Gai bakoitzeko pertsona jantzi bat aurkitzea lortu dugu; zineman Koldo Almandoz dugu, literaturan Kirmen Uribe, musikan Asier Leoz... dituzten ideiak proposatu eta hortik abiatuta egituratzen dugu zenbaki bakoitza. Gure asmoa zen gure artxibora ez mugatzea, eta, ildo horretatik, edozein proposamen jasotzeko prest gaude. Aldizkari irekia egin nahi dugu.

soslaia

'The balde' aldizkari sortu berria da, baina Cesar Ekisoain zuzendariak hainbat urte darama kazetaritzaren esparrua lanean, 'Egin' egunkarian lehendabizi, 'Gara'-n gero, eta, orain, 'The balde'-n.

Ekisoainek argitu dizkigu aldizkari berriaren inguruko hainbat datu: «15.000 ale banatuko ditugu, doan, taberna, kultur etxe, arropa denda, liburu eta disko dendetan... Harpidetza egin eta etxean jasotzeko aukera ere badago, 'www.thebalde.net' webgunean».

■ **Durango Azokan izan duzue jendearen iritzia jasotzeko lehen aukera; nolako harrera izan du 'The balde'-k?**

Guretzat proba garrantzitsua izan da. Pozik gaude, jendea gustatu zaiolako, eta badirudi horrelako aldizkari bat irakurtzeko gogoz zela, gu bezala. Guk irakurri nahi genuen aldizkaria egin dugu, eta horregatik egin dugu bihilabetekaria, prozesua disfrutatu nahi dugulako, gauzak ongi egin eta pozik gelditu lortutakoarekin. Nabaritzen da jendeak eskertzen duela betiko egituratik at dagoen produktu bat. Uste dut muga batzuetatik ateratzeko garaia dela.

→ *Eduñe Elizondo*



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Fran Zisko Xabierkoa

1961ean eginiko ikerketa sakonean Jesusen Lagundiko Aita Rekondok euskaldun petototzat jo zuen Frantzisko Xabierkoa. 40 urte geroago, Nafarroako patrioiaren «euskalduntasunaren» lekukorik aurkitu ez duela aitortu du: «Jaun andreok, barkatuko didazue, baina Nafarroako zaindaria ez zekien euskaraz» dio Rekondok orain. Eta Cordovillako Inpartzialak gustura asko eskaini zion orrialde osoko erreportaia.

Hara, ahalegintxo batzuk eginen ditugu eta demagun Frantzisko gazteak ez zuela euskararik ikasi. Ahantzi dezagun ama baztandarra zuela. Bazter dezagun gizonak hizkuntza ugari —ekialde urruneko hainbat eta frantsesa, esaterako— ikasten erakutsi zuen abilezia. Eta azkenik, XVI. mendeko nafar gizartea, euskalduna erabat, burutik urruntzen saia gaitez. Tira, egin dugu esfortzua, eta? Horixe, kostata bada ere, Konpostelan gurtzen duten *Santiago y cierra España* bezain santu espainola dauka.

Teoriari eusteko nahi adina zutabe imaginario asma genitzake. Baina bat, historiarena, ezin dugu ukatu. Jaso-Azpilkuetarrek, agramondar leial izaki, larrutik pairatu behar izan zuten Nafarroaren konkista: gaztelua birrindu zieten. Cisneros kardenalari zor diogu Xabierkoaren egungo *Exin Castillos* ukitua. Jasotarrak azkenetakoak izan ziren Amaiurren amore ematen. Frantzisko gazteak atzerrian, Parisen Sorbonan ikasten zebilela, ezagutu zuen Inazio Loiolakoa. Zer esanen zion aurreneko topaketan, Iruñeko gotorlekuaren gatazkan zauritu zuten Gaztelako soldadu zaharrari? Eta zein hizkuntzatan? Izan ere antzina, arras arrunta baitzen hizkuntza bietan hitz egitea. Hizkuntzak hizkuntza, Xabierkoak *vasco soy de raza, navarro de nación*, esaten omen zuen. Eta elkarrekin proiektiorik handiena izan duen euskal multinazionala sortu zuten: Jesusen Konpainia, XVI. mendeko *MacDonalds*-a. Baina nagusia Erroman ohore lurrinetan bizi zen bitartean, naparra Txina ebanjelizatzerari bidali zuten. Dispersioa ote?

Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais-ek argitaratu zuen Rekondok eginiko lehenengo hagiografia. Egundun beste batzuk dira ospea eta izena ematen dutenak. Egungo errealtatea ezkutatzeko eta makilatzen saiatu ez ezik, antzinakoa ere eraldatzen saiatzen direnak. Alferrik dabilta. Aurpegiko zimurak ezkutatzeko saiatzen den atsoaren antzera.

gure aukerak

OLENTZERO

- ▶ **Antsoain:** Olentzero asteleheneko 18:00etan aterako da Mendikaletik, futbol zelaiaren ondotik. Gaztainak eta jostailuak banatuko ditu.
- ▶ **Aranguren:** Igandean Olentzero Taxoareko kontzejuko lokaletan izanen da 18:00etan. Astelehenean, 17:30ean, **Aranguren** herri ondoko menditik jaitziko da. 18:30ean **Labiano** ermitara ailegatuko da eta, ordubete geroago, **Mutiloabeitiko** eskoletako zubitik pasatuko da.
- ▶ **Atarrabia:** Astelehenean, haurrentzako txokolate jatea eginen dute 17:00etan Gure Txolarte elkarteak. Olentzero 18:15ean aterako da Arreko Trinitatik. Ibilbidea: Nagusia, Esteban Armendariz, Kapanaburua, Agustín García, Ricardo Bel, Ama Arrosariokoa, Fermin Tirapu, Katea, Nagusia eta Atarrabia pilotalekua.
- ▶ **Bortzirriak:** Astelehenean, 16:00etatik aurrera, **Berako** ttikien olentzeroak karraketan ibiliko dira, 17:30ean Herriko Etxeko Plazan elkartzeko. 18:00etan aterako da Gure Txokoa elkarteak helduen Olentzeroa. Eta Nafarroako olentzeroetan olentzeroena, *Lesakakoa* alegia, asteleheneko 12:00etan izanen da plazan. Bertan olentzero eta jaiotza lehiaketa eginen dute. **Arantzan** goizean ibiliko da karraketan barna, eta **Etxalarren** ilunabarreko mezaren ondotik aterako da plazara.
- ▶ **Barañain:** Olentzero lakuaren anfiteatro naturalek aterako da astelehenean, 18:00etan.
- ▶ **Burlata:** Olentzero astelehenean, 18:00etan, aterako da zubi zaharretik. Ibilbidea: Zaldua, San Frantzisko, Hilarion Eslaba, Ermita, Pio Lopereña, Nagusia, Zangoza, Olatz, Landa-zabal plaza, Azpa, Benteetak ingurubidea, Ezkababide, Nagusia, Eugenio Torres plaza.
- ▶ **Elizondo:** Gaur, 11:00etan, bi Olentzero ttiki ibiliko dira herriko karraketan barrena dendariei opari bana emateko. Olentzero handia astelehenean aterako da, 17:00etan, parkeko ikastolatik.
- ▶ **Iruñea-Donibane:** Asteleheneko 12:00etatik aurrera, euskaltegiko pla-

zan, txistor jatea, txalaparta, giza partxixa, musika eta tailerrak izanen dira. 17:30ean jokoak eta txokolate jatea izanen da auzo elkarteak, eta Olentzero 19:00etan aterako da.

- ▶ **Iruñea-Iturruma:** Olentzero Amaiur ikastolatik aterako da igandean, 18:30ean. Ibilbidea: Iturruma, Ezkirtotz, Serafin Olabe, Lopez frontoia.
- ▶ **Irurita:** Olentzero astelehenean, 17:00etan, izanen da herrian.
- ▶ **Lizarrak:** Astelehenean, Olentzero karroza gainean aterako da Lizarrak ikastolatik, 17:00etan.
- ▶ **Zangoza:** Olentzero ttikia ikastolatik aterako da gaur, 11:30ean, arkupeetarako bidean. Bertan hamaiketakoak eginen dute. Eta Olentzero handiak astelehenean eginen du ohiko ibilbidea, 20:00etan hasita.
- ▶ **Zizur Nagusia:** Olentzero asteleheneko 17:00etan aterako da Kontzeju zaharretik. Zazpiak aldera igerilekuetara ailegatuko da.

MUSIKA

- ▶ **Irurtzun:** Fangoria gaur, 22:00etan, Reverendos dantzalekuan.
- ▶ **Etxarri-Aranatz:** Anje Duhalde gaur, 23:00etan, kultur etxean.
- ▶ **Iruñea:** Berri Txarrak, Etsaiak, Skalariak, Ken 7, Na tua Man, Banda Basotti eta RIP bihar, 19:30etik aurrera, Anaitasuna kiroldegian.
- ▶ **Burlata:** Jabier Muguruza bihar, 20:00etan, Hilarion Eslaba Musika Eskolan.
- ▶ **Gares:** Mojinos Escocios bihar, 22:00etan Gares aretoan.
- ▶ **Ezpeleta:** Su Ta Gar eta PiLT bihar, 22:30ean, Iparralde frontoian.

BERTSOLARIAK

- ▶ **Irurtzun:** Bertso afaria gaur, 21:30ean, Iratxo elkarteak, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallusekin.
- ▶ **Goizueta:** Joseba Andoni Beltza, Pello Goikoetxea, Iñigo Ibarra, Ekintza Landa, Xumai Murua, Xabier Terros, Eneritz Zabaleta eta Julen Zelaia Xalto sariketako finalean, bihar, 16:30ean, eskoletako jantokian.

ANTZERKIA

- ▶ **Zizur Nagusia:** Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren *Aupa kintxo* ikuskizuna gaur, 17:00etan eta 19:00etan, frontoi handian.
- ▶ **Gares:** TEN Pinpilinpauza taldearen *Zapatat hondaturik* antzezlan bihar, 17:00etan.

ZINEMA

- ▶ **Atarrabia:** Ostegunean, 17:30ean, *Martina eta xagutxoak* filma Atarrabia pilotalekuan.
- ▶ **Burlata:** Ostegunean, 18:30ean, *Banpiero Txikia* filma Hilarion Eslaba Musika Eskolan.

BESTELAKOAK

- ▶ **Iruñea:** Urtero bezala, Zaldiko Maldikok Santo Tomas eguna ospatuko du gaur. Txistor jatea eta sagardo dastatzea izanen da Antsoleaga karrakako egoitzan, 20:00etatik aurrera.
- ▶ **Bera:** Shisha Pangma Bortzirietako espedizioaren diorama emanaldia izanen da gaur, 20:00etan, kultur etxean.

